

## **TXOSTENA, NAFARROAKO POLIZIEI BURUZKO FORU LEGEAREN AURREPROIEKTUA PRESTATU AURREKO PARTE-HARTZE PROZESUAREN GAINEAN**

1. 2017ko otsailaren 21ean, dokumentu bat argitara eman zen Nafarroako Gobernuaren Gardentasunaren eta Gobernu Irekiaren Atarian, Nafarroako Poliziei buruzko Foru Legearen aurreproiektua prestatu aurretik azalpena emateko, bildu nahian datorren arauak bereziki ukituko dituen subjektu eta ordezkariak handieneko erakundeen ekarpen/iritzi/iradokizunak.

Aldez aurreko kontsulten prozesu hau aurreikusia dago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan.

Ekarpenak biltzeko mugaeguna finkatu zen, hain zuzen ere 2017ko martxoaren 7a, hura barne.

2. Epe hori amaiturik, guztira 26 ekarpen jaso dira, edukien arabera hiru kategoriatara ekartzen ahal direnak:

- a) Datorren aurreproiektuaren eduki zehatzen gaineko ekarpenak (13).
- b) Kritikak, aurreproiektuaren prestaketan partaidetza falta delakoan (4).
- c) Eskerak, aurreproiektuaren prestaketan Nafarroako polizia desberdinetako langileei eta haien ordezkari sindikalei hitza emateko (9).

3. b) eta c) kategoriei dagokienez, bidezkoa da honen berri ematea:

Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikulua agintzen du jaso behar dela datorren arauari buruz zer iritzi duten arau horren beraren eraginpean gerta litezkeen subjektu eta ordezkariak handieneko erakundeek, bera prestatu baino lehen. Betebehar hori konplutua da Gardentasunaren eta Gobernu Irekiaren Atarian egindako parte-hartze prozesuarekin. Alabaina, horretaz landa, parte hartzeko eta iritzia agertzeko aukera eman zaie subjektu eta erakunde hauei:

- Foruzaingoko enplegu guztien ordezkariak.
- Nafarroako udaltzaingoetako ordezkariak, udaltzain eta albienteenak, eta Nafarroako udaltzain laguntzaileak.
- Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari.
- Nafarroako Udaltzaingoak Koordinatzeko Batzordeari (besteak beste, toki entitateetako agintarien ordezkariak eta Foruzaingokoek osatuta).

Jendurreko aldiari amaiera eman zaio txosten hau prestatuta; foru legearen aurreproiektua tramitatzeko prozeduraren hurrengo urratsa izanen da aurreproiektu horren testu artikuluduna ekartzea Foruzaingoaren Mahai Sektorialera –sindikatuarekin negoziatzen dadin–, Nafarroako Udaltzaingoak Koordinatzeko Batzordera, Nafarroako Polizien Kontseilura eta Toki Araubideko Foru Batzordera; orobat, testua berrikusi egingen dute Nafarroako Gobernuko beste barne organo batzuek, baita haren gainean txostena egin ere, eta jendurrean jarriko da, berriz ere ekarpenak egin daitezkeen, testu artikuludunaren gainean.

Foruzaingoaren Mahai Sektorialera dei egin zaie udaltzaingoetako ordezkariak, aurreproiektuan interesa duten langile guztiei plaza eman nahirik.

Halaber, nabarmentzekoa da Nafarroako polizia desberdinetako jendeek egin dituztela aldez aurreko kontsulten tramite honetan jasotako ekarpenak, batez ere Foruzaingokoek eta udaltzaingoren batekoek; horiez gain, udal agenteek, Nafarroako toki entitateren bateko ordezkariak eta gobernuz kanpoko erakundeetakoek.

Hori guztia, deusetan ukatu gabe Parlamentuko talde desberdinek ordezkari publikoak diren aldetik Parlamentuko egoitzan gauzaten duten parte-hartzea.

4. a) kategoriari dagokionez (datorren arauaren alderdi zehatzen gaineko ekarpenak), alderdi hauek gehituko dira foru legearen aurreproiektuaren testu artikuludunean:

- a) Enplegu desberdinen artean ordainsariei dagokienez dauden aldeak zuzentzeko neurriak. Orobat, Nafarroako polizietan destino batzuek duten arriskuari buruzko proposamenez den bezainbatean, bereiziko dira, batetik, polizia guztien arrisku orokorra, berariazko osagarriaren ordainsaria izanen duena, eta bestetik, destino batzuek berezko duten arriskua, lanpostuko osagarriaren ordainsaria izanen duena, Nafarroako polizietako lanpostuen balorazioari buruzko azterlanarekin bat etorriz.
- b) Polizia lana kontrolatzeko kanpoko baliabideak. Orokorrean, aurreproiektuak jasotzen duenez, polizien jardueraren ondorioz herritarrek aurkezten dituzten keak polizia ez diren langileek aztertuko dituzte. Gainera, Jardunbide Egokien eta Gardentasunaren Batzordea sortuko da, autonomia organiko eta funtzionalez hornitua, kontrolerako kanpoko baliabide gisa, gai larrienak aztertzeko eta deontologia eta etika polizialaren alorrean gomendioak egiteko.

Alor horretan berean, bide bat abiaraziko da ausazko kontrolak eta identifikaziorako inprimakiak bermatzeko, edozein bazterkeria mota galaraziz arraza, sexu edo beste edozein inguruabar pertsonal edo sozial direla-eta.

- c) Polizia Judizialaren eginkizunak gehitzea Foruzaingorako, zehaztasun gehiagorik gabe, gaur egun indarra duen Foru Legean ez bezala, hartan eginkizun horien xehetasuna gelditzen baita antolamendu juridikoan xedatzen denaren mende.

Arauaren erregelamenduzko garapenaren prozesuan landu behar diren ekarpenak aztertuko dira foru legearen aurreproiektua tramitatu eta onetsi ondoko prozedura horretan.